

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2018ko bigarren seihilekoko ordainagiriak**

Egin delarik Etxabarri Urtupiñako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, 2018ko bigarren seihilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Etxabarri Urtupiñako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, zergen foru arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea urtarrilaren 28an hasi eta otsailaren 28an bukatuko da, egun biak barne.

Ordainagiriak helbideratuta dauzkateni otsailaren 28an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Etxabarri Urtupiñako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etxabarri Urtupiña, 2018ko abenduaren 28a

*Lehendakaria*

*MILAGROS LÓPEZ DE MUNAIN MENDIVIL*